

ALEGAZIOAK, BEHIN BETIKO MUGIKORTASUN HORIZONTALAREN ZIRRIBORROARI

Idazki honen bidez alegazioak aurkezten dizkiogu Sektore Mahaiaren 2015eko apirilaren 20ko dokumentuari, Osakidetzaeren zerbitzu-antolakundearen mugikortasunaren gaineko dokumentuari, hain zuzen. Eskatzen dugu:

- Mugikortasun horizontaleko prozesu guztiak irekiak, gardenak eta kontrolatzeko modukoak izatea; plaza-kodea, dagokion unitatea eta izen-abizenak dituztela; eta jatorriko eta xedeko plazak zein diren eta zein sistema/prozesu bidez beteko diren uneoro ezagutzeko aukera eman. Publizitatea sindikatuei eta interesa duen edonori eman behar zaio.
- Batzorde bat sortzea, prozesu osoa zuzentzeko, kontrolatzeko eta jarraipena egiteko. Batzorde hori parekidea izan behar da: Administrazioa eta sindikatuak, bakoitzak Osakidetza, oro har, duen ordezkaritzaaren arabera.
- Prozesuan eskainiko diren plazak, baita eskainiko ez direnak ere, batzordearen baitan erabakiko dira.
- Egokitzapenak kategoria guztietarako izan behar dira, salbuespenik gabe, eta batzordean negoziatu beharrekoak. Egokitzapenen prozedura irizpidez arauturik egon behar da antolakunde guztietarako.
- Eskaini beharreko plazak hauek izango dira: deialdia baino 2 hilabete aurretik egokitu, amortizatu edo birmoldatu ez diren postu huts guztiak.
- Osakidetza mekanismo bat aurreikusi behar du postu funtzional bakarretarako edo espezialitate bati lotutako postuetarako; horietan dihardutenek zerbitzu-antolakundearen barruan mugikortasunik eskatzerik ez duten kasuetan. Langile horiek ezin dute gauzatu mugikortasun horizontalik, ez behin-behinekorik, ez behin betikorik.
Zentroen arteko Behin betiko Mugikortasun Horizontalaren arautegi bat prestatzea eskatzen dugu, beste postu-horniketa batzuk gauzatu baino lehen, erakundez aldatzeko aukera ematearren.

- **8.9 puntua.** Ez gaude ados idazketarekin, eta honela uztea eskatzen dugu:

“Behin postu berriari atxiki ondoren, hilabeteko epea ematen zaio langileari lanpostu berriari uko egiteko. Atxikipen berriari uko egiten dion langilea jatorri-postura itzuliko da, lorturiko eskubide guztiak gordez.”

- **5 e) puntua.** Berariazko atalak edo unitateak ezabatzeko eskatzen dugu edo, gutxienez, berariazkotzat jotako unitateak zein diren arautegi honetan zehazteko. Halaber, berariazko prestakuntza ezin zaie leporatu langile jabetu berriei, ez badira sortu berariazko postu funtzionalak; horregatik, helmugako unitatearen ardura izango da langile heldu berrien prestakuntza.
- **7. puntua.** Puntu hau aldatzea eskatzen dugu. Helmugako postuaren iraunkortasuna ez dugu mugatu nahi, ezta edozein unetan eskaini daitekeen edozein mugikortasun-motatan parte hartzeko aukera ere.

- Mugikortasuna **IREKIA eta ETENGABEA** izan behar da, edo gutxienez urtean 6 deialdi egingo direla ziurtatu behar. Hori dela-eta, idazketa honelakoa izatea eskatzen dugu:

3. puntua. *"Behin betiko Mugikortasun Horizontalaren prozesua, orokorrean, irekia eta etengabea izango da; horretarako, deialdi publikoak egingo dira xehetasun guztiak jakitera emanez: plaza, zentroa, unitate edo zerbitzua, txanda eta hizkuntza-eskakizuna.*

Irekia eta etengabea ez den beste prozedura bat erabakiz gero, gutxienez bi hilik behin egitekoa izango da, eta 6 deialdi behintzat berrmatuko dira, sistema horren bidez hornitu ahal diren plazak hartuz."

- **3. puntua: Zera eskatzen dugu:** ESI bat sortu baino lehen, ESI berri horren barruan eratuko diren zerbitzu-antolakunde bakoitzean "behin betiko mugikortasun horizontala" bat egin behar da. Behin ESI sortu ondoren, behin betiko mugikortasun horizontala egingo da Lehen Arretaren esparruan. Eta, halaber, interesduna, ESI sortu aurretik, pertsonal finko moduan atxikita zegoen Espezializazio Arretan ere sustatuko da BBMH. Mugikortasun horrek txanda mugatukoa, behin baterako, eta maila pertsonalekoa izango da.
- **8.1. puntua.** Postu bat sortzen den bakoitzean eskaintzeko eskatzen dugu, MH bidez hornitu daitezkeen postu hutsak kendu gabe edo atzeratu gabe.
- **8.4 puntua.** Baremazioaren emaitza batzordeak aztertuko du, eta batzordearen bilera egin baino lehen beharrezko dokumentazioa bidaliko zaie batzordekideei.
- **9 puntua.** Aldi baterako mugikortasun horizontala berariaz arautzeko eskatzen diogu Osakidetzari. Horren bidez zehaztuko dira prozedura eta zein kasutan gertatuko den. Ez da utzi behar antolakunde bakoitzaren esku prozesuan abiarazteko erabakia, arautegian eta bertan ezarritako irizpide objektiboetan oinarritu behar da.